# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 5634

*EBAZPENA, 2018ko urriaren 24koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez finkatzen baitira uztailaren 29ko 159/2014 Dekretua garatzen duen 2017ko martxoaren 16ko Aginduak aipatzen dituen aldizkako probak egiteko datei buruzko irizpideak.*

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko martxoaren 16ko Aginduak garatzen du uztailaren 29ko 159/2014 Dekretua, ibilgailuak erregaiz hornitzeko jendaurreko salmenta-instalazioetan segurtasun-neurri osagarriak ezartzeari buruzkoa.

Agindu horrek aldizkako proba batzuk egiteko betebeharra eta proba horietarako tanga-mota bakoitzari aplikatu beharreko kasuistikaren gaineko aldizkakotasuna ezartzen ditu, baina, kasu batzuetan, ez du adierazten zer datatan egin beharko den lehenengo proba.

Halaber, agindu horren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera, energia gaietan eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindua bete eta garatzeko behar diren neurriak har ditzan.

Ondorioz, gai horri buruzko denbora-erreferentzia bat ezartzeko, bidezkoa da honako irizpide hauek ezartzea, kasuaren arabera:

a) Lantegian egindako horma partzial bikoitzeko tangei –erregistratu zirenetik 20 urte igaro badira– ekoizkinik gabeko aldizkako estankotasun-proba egingo zaie, 5 urtetik behin; lehenengo proba tangak 20 urte bete eta 5 urtera egingo da. Epe hori igaro eta proba gainditu ez duen tangarik badago, 6 hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion proba egin eta ziurtatzeko.

b) 2017ko martxoaren 16ko Agindua argitaratzean dauden ordezkatzeko horma bikoitzeko tangei I. eranskineko 4. puntuan ezarritako probak egingo zaizkie bost urtetik behin, ordezkatzea erregistratu eta 5 urtera egingo delarik lehenengo proba. Epe hori igaro eta proba gainditu ez duen tangarik badago, 6 hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion proba egin eta ziurtatzeko.

c) 2017ko martxoaren 16ko Agindua argitaratu eta gero jarritako ordezkatzeko horma bikoitzeko tangei I. eranskineko 4. puntuan ezarritako probak egingo zaizkie, bost urtetik behin, erregistratu eta 5 urtera egingo delarik lehen proba.

d) Lantegian egindako ordezkatzeko ez diren horma bikoitzeko tangek, 2018ko martxoaren 25etik aurrera –baldin eta ez badute halakorik egin aurretik– ihesak detektatzeko sistemaren arabera egindakoak direla erakutsi beharko dute. Horrelakorik ezartzen duen xedapenik ez dagoen bitartean, ez dituzte I. eranskineko 4. puntuan ezarritako probak egin beharko.

e) 2017ko martxoaren 16ko Aginduaren aurretik horma bikoitzekoak izateko eraldatutako tangek –baldin eta zerbitzua abian jarri izana dagokion lurralde-ordezkaritzan jakinarazi bada– I. eranskineko 4. puntuan ezarritako aldizkako probak egin beharko dituzte bost urtetik behin, eta lehenengo proba eraldaketa jakinarazi eta 5 urtera egingo da. Epe hori igaro eta proba gainditu ez duen tangarik badago, 6 hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion proba egin eta ziurtatzeko.

f) 2017ko martxoaren 16ko Aginduaren aurretik horma bikoitza izateko eraldatutako tangei –baldin eta ez badira erregistratu agindua indarrean jartzean– I. eranskineko 4. puntuan ezarritako probak egingo zaizkie bost urtetik behin, lehenengoa 2018ko martxoaren 25ean.

g) 2017ko martxoaren 16ko Agindua eman eta ondoren eraldatutako tangei I. eranskineko 4. puntuan ezarritako probak egingo zaizkie, bost urtetik behin; horretarako, erreferentzia modura hartuko dira ibilgailuak erregaiz hornitzeko jendaurreko salmenta-instalazioetan segurtasun-neurri osagarriak ezartzeari buruzko uztailaren 29ko 159/2014 Dekretuko 1. artikuluan ezarritako datak, tangen antzinatasunaren arabera betiere.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 24a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.